

Aitareen kulunka

Maite dut aita larrazkenean
egun epelean, hostoa erortzean.
Maite dut aita negu beltzean,
elurra delarik, aintzira hormatzean.

Maite dut aita udaberri euritsuan,
lasterka noalarik pentze loretsuan,
desagertzen den bide oker lohitsuari,
gordetzen naizelarik laño itsuan.

Maite dut ere udakerretzean,
belar idorren usainak xoratzean,
sapak iturri guziak agortzean,
kirkira kantuz delarik pentzean.

Baita maite dut lau sasoietan
pozik naizelarik,
penetan naizelarik,
ikusten dudalarik maiz amentsetan,
ene kulunkatzen, gau izartsuetan.

Luixa Giltzu 2000

Izarrak dantzaz

Banatorizue kantatzera
egun ederra dela eta,
xamurtasunez mintzatuko naiz
hartuz haur on baten planta,
nahiz eta batzuetan ilunik egon
da gizon xuxen aparta,
familiaz hartzen du arta,
etxean ezer ez da falta.
Laguntzeko beti presta,
eta amarekin galanta,
gure etxean zoriontsu gara
hor baitugu gure aita !

Goizean goizik jaiki eta
badoa laster lanera,
ez da beti gogoz plegatzen
biziak marka legera,
egunean zehar banaiz tristatzen
joanen naiz iruditzen,
heldu dela goxatzen,
kulunkez eguna ontzen.
Eta noalarik lokartzen,
eguna doalarik iluntzen,
izar guziak dantzaz dabilta
sartzen delarik etxera !

Luixa Giltzu 1999

Ama maite(a), ohar zaite(z)

Handiak dira, Ama,
dituzun indarrak,
zuk sendatzen dituzu
ditudan sukarrak,
kontsolatzen dituzu
gaueko negarrak,
dirdiratzan duelarik
zeruko izarrek.

Tristura tenoretan,
nauzu kontsolatzen,
zainetan naizelarik
nauzu kulunkatzen,
nahiz eta batzuetan
ni naizen ninitzen,
poli-poliki, Ama
ari naiz handitzen.

Amaren irudia
ez zait nehoiz hotza,
beti gogoan daukat
epel duen ahotsa,
zure ondoan bizia
egiten zait motza,
eta zu urruntzean
triste dut bihotza.

Ama maite(a), ohar zaite(z),
zenbat zaitudan nik maite !

Luixa Giltzu 2006

Musuak

Haur maitearen musua
zuretako,
eskimalaren musua
zuretako,
urtxintxaren musua
zuretako,
tximeletaren musua
zuretako,
arrainaren musua
zuretako.

Ene musu guziak
eta ene bihotza
dira zuretako !

Luixa Giltzu 2007

Izarren mirailetan

Idatziko dut Ama
mendiko harroketan,
pentzeko belarretan,
harean hondartzetan.

Margotuko dut Ama
gure paisaietan,
zuhaitzen itzalpetan,
mila koloretan.

Kantatuko dut Ama
aire ederrenetan,
ehun doinuetan,
nota xamurreneta.

Ikusiko dut Ama
zeruko alorretan,
ametsen ildoetan,
izarren mirailetan.

Luixa Giltzu 1990

Dohainez betea

Itsasoa musuka,
doakio hondarrari,
eta haizea ufaka,
doakio mendiari,
izarra laketua da
bere zeruari,
eta ni atxikia
Aita maiteari !

Neguak horma hotza
du bere dotea,
udaberriak lorez
du bere lotea,
udak kasik beti badu,
bere idortea,
eta nik badut aita
dohainez betea !

Luixa Giltzu, 2003ko ekaina

Handitzean ere

Handitzean ere, oroituko naiz
nola laguntzen nauzun arboletara igotzen,
nola goxoki bultzatzen nauzun
txirrindulaz naizelarik abiatzen.

Handitzean ere oroituko naiz,
nola ari garen, xori eta loreen izenak ikasten,
liburu ederrenei begiratzen,
ene ileak dituzula ferekatzen.

Handitzean ere oroituko naiz,
nola gabiltzan sasietan kafiren* xerkatzen,
azkon ziloen guardiatzen,
edo haritzan bilintxen muntatzen.

Handitzean ere oroituko naiz,
nola Xori-lepoko xenderan* garen ibiltzen,
nola pagoa dugun lizarretarik bereizten,
nola konkolotx nauzun, nekatzean hupatzen.

Handitzean bihar,
gaurkoaz baikara oroituko !

Luixa Giltzu

**kafira : habia*

**xendera : xendra*

Ixo ama lo da

Opari bat egin dut,
Ama, zuretake,
zure begien distiran,
loriaren ikusteko.

Izan eguna, izan gaua,
oparia dilingo atean bada,
etxean erranen dugu,
ixo ! Ama lo da !

Luixa Giltzu

Bihotzeko gakoa

Eder den oparia
agian duzu maita*,
zure plazerarentzat
hau egina baita,
xoriburu bazara
lagungarri da eta,
bihotzeko gakoa
ez dadila falta !

Ekainak ekarri digu
egun delakoa.
Gaur, Aita, bildu nahi dut
zure soakoa,
opari arraroa
dilindatzekoa,
maitasuna sortzeko
zuk duzu gakoa !

Luixa Giltzu

**maita : maitatuko*

Izarren distira

Taupadak bildu zaizkit
bihotzaren erdira,
mila lore kanpoan
segur sortu dira,
opari bat dakart
zuretzat argira,
begietan bildurik
izarren distira !

Besta on, Ama, entzun
eder da eguna,
gaur berriz erran nahi dut
nahiz jada entzuna,
bihotzekoa dudala
ene ama ona,
opari betikoa
ene maitasuna !

Luixa Giltzu 2010

Loreen dantza

Arrosa gorria lotan,
bi lorio xuri,
hiru oin lodi arros*
kulunkatzen ari.
Lau julufrai hori,
errondan iduri,
eta bost idi-bihotz
gurtzen hain uros,
amaren goxatzeko,
hunkiz haren bihotz(a)!

Anitz lore
eskuin ezker,
pizteko amaren plazera,
eta loretan ederrena,
zu, ene Ama ederra!

Luixa Giltzu 2010

**arros : arrosa*

Xoriak bildu dira

Gaur goizean,
gereziondoak lore xuri,
bildu ditu anitz xori.
Amilotxa luma urdin,
pinpin xoria hain arin,
papogorria, kardelin* aios,
epetxa* uher, erresiñola lorios,
denek dirudite uros !

Gereziondoan
anitz xori,
Amari kantari !

Luixa Giltzu 2010

**kardelin : kardinale, kardamiru*

**epetxa : txepetxa, larrepettitta*

Mariona

Ez duzu gona luzerik,
ez duzu xapel* xingoladunik,
ez duzu soineko dirdirarik,
ez duzu izar makilarik,
ez duzu jauregirik
ez eta batzuetan printzerik.

Baina hala ere berdin berdin
zara ene Mariona,
begietan baituzu izar sakona,
aintzira umel,
irrian dirdira pindartsu,
besoetan jauregi epel,
bihotzean supazterren su,
eta izar makilak dantzan
dituzu zure kantan !

Luixa Giltzu 2010

**xapel : txapel*

Goizean jaikitzean

Goizean jaikitzean,
loreak bere ihintza,
tximeletak lorea,
kirkirak belarra,
kattalingorrik arrosa,
ainarak zerua,
egunak argia.

Eta nik,
maite dudan eguzkia,
zu, ene ama !

Luixa Giltzu 2010

Nik ele eztiz

Xerri ttikia amari deika kurrinka,
bildotsa marraka,
xitoa txioka
aratxea marrumaka,
zaldia irrintzinaka,
otsoa uhuriaz,
eta axeria xanpaz.

Ni, amari naizelarik mintzo,
deitzen dut goxo, goxo,
ele eztiz,
eta olerkiz.

Luixa Giltzu 2010

Amaren lepokoa

Baliozko lepoko bat
zuretzat opari,
kanpoan aurki ditut
aise mila harri !

Bitxi loreen bihotzetan anbar hori
mitxoleten errubi gorri,
errekan agata berde,
harrien tigre begi,
izarren artean, ilargi harri xuri.

Itsasoan, akuamarina urdin,
eta lapis-lazuli,
leize zolako ametista ubel.

Mendiak bota duen
kuartzita gardena,
diamanta iduri duena !

Hostoen esmeralda,
zeru ilunen zafiro,
eta harri bakoitzaren baitan,
ene bihotz beroa lo !

Luixa Giltzu 2010-02-26

Milaka eta ehunka

Ene bihotzak baditu ehunka lore,
xuri, gorri, urdin, more,
primaderako pentzeen pare.

Ene bihotzak baditu milaka pindar,
zeruak duen hainbat izar,
planeten arteko ortzadar.

Ene bihotzak baditu ehunka uhin,
itsas zolako leize eta lamina arrain,
uharteetako altxor harrien dirdira fin.

Ene bihotzak baditu mila mendi,
ttiki borobiltsu, edo xut handi,
haien puntan betiko bakea geldi.

Ene bihotzak baditu ehun xendera*,
denek daramate etxe berera,
ni sortu nauen sabelera.

Luixa Giltzu

**xendera : xendra*

Mendiak mintzo

Gaur entzun dut Urtsu kantuz,
zendako ote, zendako ?

Gaur entzun dut Artzamendi txistuz,
loriako, loriako.

Gaur entzun ditut Atxuria eta Ibanteli,
baita ere Larrun,
zer ote da egun ?

Mendaur, Aiako harri,
Goramendi lagun,
denek dute ber oihartzun,
aitaren besta ospa dezagun !

Luixa Giltzu

Musuka jan bihotzez

Liliak maite pentzea,
ainarak maite haizea,
papogorriak ohantzea.
Karakoilak baratzea,
nik ama eta etxea !

Liliak bil maiatzean,
ainarak txio haizean,
xoriak lo ohantzean.
Kurkuil jan jan baratzean,
amaren besta da etxean !

Jantzi begiak dirdirez
bertsuak ele xamurrez,
torra mattelak ferekez.
Besarka ama ttinko ttinkez,
musuka jan bihotzez !

Luixa Giltzu 2007/05

Oroitzapenen lorea

Lore gorri, lore xuri,
lore urdin edo hori,
oparitzeko amari,
eta bere irriari.

Ireki da hegoari,
ireki da erleari,
ireki sorgin orratzari
eta kattalingorriari.

Egun bildu dut morea,
da zurea, da zurea,
oroitzapenen bidea
markatuko duen lorea.

Luixa Giltzu

Hizkiak

Ikasi ditut hiru hizki :
amodioaren A
maitasunaren M
axolaren A

Hartu dut ene arkatza,
punta ongi xorroxtuz,
eta hiru hizkiak lotuz,
idatzi dut gustuz,
hautatu hitza AMA
zure irriaz oroitzuz !

Eta oparia prestatu dut,
zure hitzaren hotsak,
ene gogoa alaitzen zuenean,
ikus ezazu zer dudan gordean !

Luixa Giltzu

Biziaren miraria

Aitari bertso bat kantatzera,
nator bere egunean,
gehienetan ibiltzen baikara
presa larrien menean,
musu bat beraz egun harrazu,
eztizkoa den unean,
bihotzean grabatua zaitut
baita ere garunean.

Hozkailuan han dago xanpaña,
prestatua janaria,
etxeak dituen xokoetan
gorde dugu oparia,
jadanik irriz duzu ezpaina,
begia distiraria,
familia zure inguruan
biziaren miraria.

Eta amak berdin nirekilan
maite baitzaitu hainbertze,
xamurtasunez eta hitz goxoz
eguna nahi dugu bete,
familia guzia elkartu da
begira zara potente,
gizona bada franko munduan
guk aita bat dugu maite !

Luixa Giltzu

Tximeletak erran dit

Tximeletak erran dit
lehen airatzean,
pottoka aitari so
egizu pentzean,
margo ezazu xarmanki
poza bihotzean,
opari bat egiteko
eguna etortzean.

Nik baietz erran diot
bai tximeletari,
laster tindatuko dut
oi pottoka hori,
eta jada badakit
nola opari nori,
ekainaren erditsutan
ene aitattori.

Opari honek darama
zorionaren argi,
aitari piztu behar zaio
bihotz eta begi,
nola holako opariak
ez dituen hamabi,
emanen dizkiot gainera
musu bat edo bi.

Oparia irekazu
bai zentzu onean,
arta harrazu ez koka
xingola kixkoldunean,
eta pottoka fereka
modu zuzenean,
tximeleta hor baitabil
guri so airean !

Luixa Giltzu 2002

Bihotzaren punpekin

Ttinko ttinko
besoekin,
goxa goxa
eskuekin,
potta potta
ezpainekin,
ileak nahas
erhiekin,
belarriak kilika
goxotasunarekin,
ezker, eskuin
sudurrarekin,
berriz ttinka
besoekin,
xarma irri
goxoarekin,
ene bihotzaren
punpekin !

Luixa Giltzu 2004

Has huntza uhurika

Liliak hasi dantzan, belarren pentzetan,
kirkirek egin kir-kir, landareen oinetan,
papogorriek kanta, zuen ohantzetan,
aitaren eguna jin baitzaigu benetan.

Has sator belusa zilo muturkatzen,
eta has tximeleta loreen xurgatzen,
has ainara beltza zeru gurutzatzen,
aitaren egun honetan baikara loriatzen.

Has huntza uhurika gauaren urratzen,
has izar guziak zeruan dirdiratzten,
has ilargi xuria arku kulunkatzen,
gaur aitaren eguna baitugu ospatzen.

Luixa Giltzu 2003

Harria

Zure eguneko, bildu dut harri,
musu, maitasun eta irri.

Hunki ezazu ene harri
eta irudika :
itsas haizea orroaz ari,
marinela beldurrez so
gau beltzeko ximixtari,
itsasontzia dardaran
buru egiten ekaitzari,
uhin basak itzulian,
bake gabe dantzan ari,
marinela otoizka
jin dadila egun garbi.

Aita hunki ezazu ene harri
eta irudika :
eguzkia dirdiran, itsasoa geldi,
marinela portura heldu
kopeta argi,
ama-haurrak kaian goaitan,
pozez oihuka aitari.

Aita goxa ezazu ene harri
eta zaude adi :
jasan dituen galernerⁱ*,
bero, hotz, gau xuri,
Aita zaude adi,
harriaren urteerⁱ*,
eta ene maitasunaren indarrari.

Luixa Giltzu 2000

**galernerⁱ : galernei*

**urteerⁱ : urteei*

Itsasoko uhinak

Besta on, Aita,
zure eguna gaur baita !

Jostatzeko arrainak
nola ura duen maite,
egunero nirekin,
Aita, josta zaite(z) !

Gaztelua egingen dut,
harea, hoscokolekin*,
itsasora joatean,
Aita, ni zurekin !

Itsasoko uhinak
txalupa bezala,
zure bihotz epelak
kulunka nazala !

Luixa Giltzu 2005

**hoscokol : maskor*

Adizu hadi

Adizu adi, izarra,
nik badut aita bat azkarra.
Adizu adi, eguzkia
nik badut aita bat goxo eta ez tia.

Adizu adi, haize Enbata,
nik badut aita bat aparta,
adizue zeruko galerna eta hodei more
nik badut aita bat dena irri eta umore.

Eta noizbait baldin bada kexu,
hori da istant baten txistu,
ondotik besoak sendoago dira,
haien xiloan dut ene kafira*.

Luixa Giltzu 2008

**kafira : habia*

Umezurtza

Ni umezurtza naiz,
hala ere diot Besta on,
xerkatuz zorion(a).

Nork zabalduko dizkit besoak ?
Nork prestatuko bere altzoa ?
Ni umezurtza bainaiz,
eta hala ere baitiot Besta on.

Zeinek du sorbalda aski zabala,
ibil nazan konkolotx ?
Zein da aski betea den bihotz(a)
entzun dezadan maitasunezko hots(a) ?
Ni umezurtza bainaiz.

Nork idatziko dit olerki bat
esperantzazko elez beztia,
idurizko epel eztia,
nik ere erran dezadan Besta on,
xerkatzen baitut zorion(a).
Olerki bat eztia, esperantzaz jantzia,
gau ilunetan mintza nadin izarrei,
Besta on erranez, dirdirazko planetei,
haien dirdiran kausi dezadan
diseinatu nauenaren begirada sakona,
haren bisaia amultsu eta ona,
ni umezurtza bainaiz,
eta hala ere baitiot Besta on,
xerkatuz zorion(a).

Luixa Giltzu 2010/04

Urtaroz-urtaro

Zure besta larrazkenean balitz,
joango ginen, Aita, hosto gorrien metatzera.

Zure besta neguan balitz,
joango ginen, Aita, supazterren piztera.

Zure besta primaderan balitz,
joango ginen, Aita, basa marrubien biltzera.

Baina zure besta udaren sortzean baita,
goazen, Aita,
lehen gerezi gorrien biltzera !

Luixa Giltzu

Zaku bat

Otoi, Aita,
zaku hau ez bota !

Barnean, baliozko altxor bat
hor dago gordeka.

Otoi, Aita,
zaku hau ez bota !

Barne sakonean
menturaz hor baita,
maitasunez taupaka,
ene bihotz puska !

Luixa Guilzu 2010

Zure beso azkarrek

Zure beso azkarrek
nautelarik tinkatzen,
ortzantzake ez nau izitzen.

Zure beso azkarrek
nautelarik altxatzen,
izarrak ditut ikusten.

Zure lepoan konkolotx
nauzularik eramaten,
ni urusena naiz sentitzen.

Luixa Giltzu 2009/05

*Autorea : Luixa Giltzu
Argitaratzailea : Ikas
Argitaratze data : 2011/02/14*